

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

OIONGO UDALA

Jarduera ekonomikoen gaineko zerga kobratzea eta ordaintzeko aldia jakinaraztea. 2018ko ekitaldia

Ordaintzeko epea:

A) Borondatezko epea: Jarduera ekonomikoaren gaineko zergaren aurtengo ordainagiriak ordaintzeko moduan egongo dira, borondatezko aldiari, 2018ko azaroaren 26tik 2018ko abenduaren 28ra bitarteko egun baliodunetan, bi egun horiek barne. B) Betearazte aldia: 2019ko urtarrilaren 2tik aurrera betearazte aldiari emango zaio hasiera, eta betearazte errekarguak, nola premiamendu murriztukoak hala arruntekoak, ordaindu beharko dira, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrek adierazitako epeetan.

Ordaintzeko lekua eta modua

Banketxeetan helbideratutako ordainketak: Ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta daukatenek ez dute beste ezer egin beharrik, baldin eta helbideratuta duten banku kontua berbera bada. Udalak izapidetuko du ordainketa.

Zergaren ordainketa helbideratuta dutenei abenduaren 5ean kobratuko zaie.

Helbideratu gabeko ordainketak: ordainketa helbideratuta ez duten pertsonak udal bulegoetan eska dezakete ordainketa banku kontuan helbideratzea, diru sarrera egin dezakete Kutxabank finantza erakundearen udalak duen bilketarako kontuan, edo Udalaren diruzaintzan egin dezakete ordainketa.

Ediktu honek, orobat, betetzen du erroldan sartuta dauden likidazioak kolektiboki jakinarazteko zeregina, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrek 98.3 artikuluan eta Zergabilketarako Arautegi Orokorra onartzen duen uztailaren 29ko 939/2005 Errege Dekretuaren 24. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Aldizkako epemuga eta jakinarazpen kolektiboa duten zorrak direnez, berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da Alkatetzan, ordaintzeko borondatezko epean, edo hilabeteko epean, hura amaitu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta. B0181108

Oion, 2018ko azaroaren 8a

Alkatea

EDUARDOTERROBA